

JARDUERAK

Alde batetik, beste enpresa batzuen esku garbiketa lana utziko dugu. Lokalaren eta ibilgailuen garbiketak haien esku utziko ditugu. Limpiezas La Porxada enpresak lokala garbituko digu eta Limpirezol enpresak berriz, ibilgailuak garbituko dizkigu. Azken honek garbiketa sakon bat egingo die auto bakoitzari, barrutik nahiz kanpotik. Horrez gain, sabanak, eserlekuak, etab garbituko dituzte. Guztira 2.400 €/urtero estimatzen ditugu.

Beste aldetik, segurtasun lanaz beste enpresa bat arduratuko litzateke, enpresa hau Securitas Direct izango da. Securitas Directen alarmek alarma guztiak hartzeko zentral bat dute, eta horri esker, alarma-sistemaren bidez aseguratutako ondasuna kontrolatu, hauteman eta monitorizatu daiteke. CRAk, sarkinen bat sartzen dela egiaztatu ondoren, dagokion segurtasun-erakundeari abisatu behar dio. Enpresa fidagarria eta segurtasun gutzizkoa da. Alarma instalatzea 100€ kostatuko litzaziguke eta hilabete bakoitzean 40€ gutxi gorabehera. Guztira, lehenengo hilabetean 140€ izango zen eta gainerako hilabetetan 40€, urte batean 480€.

Mantentze lanari dagokionez, Garaje Eguietxa enpresaren esku utziko genituzke lan mekanikoak. Hau da, ibilgailu bat apurtzerakoan konponduko lukete eta noizean behin berrikusketak egingo dizkiete. Urtero 4.000€ kalkulatzen ditugu, baina ibilgailuaren konponketaren arabera prezioa aldatu ahal da.

Alokairuari buruz, gure taldeko biek enpresan fisikoki lan egingo dute, deiak hartzen, zalantzak argitzen, webgunea berritzen, bezeroak lortzen, eta abarreko jarduerak egiten. Horretarako, lokal handi bat alokatuko dugu, bertan ibilgailu guztiak gordetzeko, eta lekua dagoela aprobetxatuz, bulego bat bertan ipiniko genuke. Lokal hau Zaramagan dago eta 8.100€ ordaindu beharko genuke urtero. Horrez gain, argindarraren kostua 500€ urtero izango zen.

Soldatei dagokionez, lehen aipatutako biek, lanaldi erdia lan egingo zuten, bakoitzak 600€ hilabetero kobratzen. Urtero bi lagileen artean 14.400€. Gizarte segurantzaren %15a izanda, 2.160€ ordaindu beharko genuke.